

# ELHUYAR

---

R.S.V.A.P.-en Zientzi eraskina

---

ZUZENDARIA: *Luis Bandres*

IDAZKARIA: *Andoni Sagarna*

ZUZENBIDEA: *Círculo de San Ignacio. - San Marcial, 26, bajo. - San Sebastián*

---

## TEXTU LIBURUAK

Euskarazko irakaskuntza aurrera doa: geroz eta hedatuago, egunetik egunera osatuago, behialdako taldetxo erdi izkutu haiek bide handiak egin dituzte dagoeneko.

Textugintzari dagokionez, oraindik urte gutxi arteko egoera ba dakigu nolakoa izan den: ikasliburuak behar eta lubururik ez. Izan ere, gerraurrean argitara emanikako liburu batzuez aparte ezer gutxi bait zegoen ikasle-irakasleen irispidean.

Oraindik ezin liteke esan eskasia hori gainditu denik: Geografia, Historia, Gramatika, Kimika eta beste zenbait sailetan nabaria bait da textu egokien falta. Baina aurrerapen biziak egin dira azken bospasei urte honetan, eta antza denez laster E.G.B. ko materia guztietarako liburuak eskueran izatekoak gara.

Egin denari begira, lanari ageri zaio halako mugapen edo tasun bat: hizkuntzari eman zaio lehentasuna, erdarazko texturik osatuena baino euskarazko ahalmoduzkoa hobe genukeen ustetan. Arrazoi parte bat izan denik ere ezin ukatu, jakina; alde batetik euskal texturik gabe ezin direlako klaserik gehienak –batez ere azken kurtsoetakoak– euskaraz eman, eta bestetik liburugintzak uste baino gehiago lagundu duelako hizkuntzak gaiok erabiltzeko zuen torpezia baztertzen eta egungo gizarte honen premietara egokitzen.

Baina bihar-etziko etorkizunari begira, honetan ere plangintza orokor baten premian gaudela uste dugu. Hizkuntza standard bat osatzen eta hezur-mamitzen ari den ginoan, orainarte halabeharrez ahazturik (edo ahaztu nahiean) izan ditugun beste arazoak hasiak bait dira agertzen:

### **Itzuli ala sortu**

Azken aldi honetan argitaratzen diren libururik gehienak itzulpenak dira; bide horri heldu bazaio, bere alde onak ere berekin dituelako izan da: euskarazko eskoltextuen argitaletxe osatu (inprimategi eta abar lituzkeen) bat ez dugun artean, tirada motzengatik kolorezko irudiak eurrez garestitzen direlarik, ministergoaren onespena lortu beharrak ere baldintzatu egiten duenez, eta batez ere testu osoak –burutik burura– gauetik goizera sortzea oso zaila denez gero, arrazoizkoa dirudi itzulpenbidetik abiatu izana.

Mesede horiekin batera itzulpenek ekar litzaketen kalteak aipatzeko, honako puntuok hartu behar dira kontutan:

–Gizarte Zientzien saileko liburuetan, gertatu egingo da behin baino gehiagotan (historia, geografia eta abarretan) liburu horik nahi bezain egokiak ez izatea: bestek ere zerbaitegatik egiten ditu nork bere etxerako propioak.

–Tirada handi samarrak direlarik, azken kurtsoetako liburuak ez dira berehala ahituko. Horrek esan nahi du, amortizatze problemaz gainera, hemendik 4, 5, 6... urtetara, oraingo liburuok onak nahiz txarrak izan, testu berdinekin jarraitu beharko dela.

### **Irakas metodoaz**

Puntu honi buruz irakasleen iritziak geureak baino argi gehiago eman lezake. Dena dela, gaurko textuliburu askori ikusi uste diogun akats bat azalduko dugu hemen: zenbait liburuk, testu bat baino areago, enziklopedia bat dirudi. Denetik zerbait erakutsi nahi zaio ikasleari, eta hitzik espezialenak ere (unibertsital mailan ere noizean behin baizik erabiltzen ez direnak) aipatu gabeko onik ez du izaten zenbait autorek. Hori dela bide, berez erdaraz ere zail gertatzen diren liburuok, nekez gerta litezke euskal ikaslearen gogo betegarri.

### **Zenbait eginkizun**

–Ikastaroak prestatu beharra dago, gai batzuk euskaraz erabiltzeko ez bait dugu ohiturarik; pentsa dezagun, esate baterako, termologiaz, fotosintesiaz, mugimendu uniformeki azeleratuaz edo aplikazio elkar-bakunez mintzatzeko ez dela aski gaia bera menderatzea: hiztegi standard batzuek jabetu beharra ez da etzizako utz deza-kegun eginkizuna, ahalik azkarren egitekoa baizik (1).

–Gidalburuekin besterik bada ere, fitxak egitea ez da hain gauza zaila. Tirada ttikiko fitxaliburuak, multicopiaz edo offsett bidez bederen erraz samar egin litezkeela

dirudi eta autofinantziario azkarra lukete. Horrela, euskal irakasleek beraiek sorturikako lana, praktikabidez frogatua eta hobeagotua, lehen pauso sendo bat litzateke bihar-egunerako textugintza propio bati hasiera emateko.

Gauz hauk esatea errazago da, noski, egitea baino. Lanok aurrera bultzatzeko erakunde bat behar bait da, lehenik; eta erakunde horrek, besteak beste, diru iturria behar luke. Azken urteotako ekintzek noraezean beste bidetatik jo behar izan badute ere, komeni litzateke gerraurreko zenbait jokabidez oroitzea: ordungo textu libururik ez bait da falta, Diputazioen bidez argitara emanik, eta beste maila bati heldu nahi balitzio hor genuke garai bateko Eusko Ikaskuntza ere, gizarte-urak espero litekeen isuritara zuzentzen badira eredu urrun eta hutsal izan beharrik ez lukeena.

- (1) Gaur-gaurkoz, Udako Euskal Unibertsitateak eskain dezake honelako ikastarorik, jadanik hasia duen bideari jarraituz.